

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

araba  álava
foru aldundia diputación foral



ARABA HELBURU

Araba Helburu ZER DA?

Araba eraikitzeko prozesu partekatua da, eta **Diputatu Nagusiaren Kabinetea** du buru. Arabako Foru Aldundiak lurraldeko gobernua gizarteari etengabe irekitzeko duen konpromisoa adierazten du.

Elkarlanean **ikuspegiak partekatzeko eta ekimenak identifikatzeko aukera** moduan proposatzen da. Horretarako, gizarte, ekonomia, enpresa eta teknologia arloko Arabako 200 eragilek baino gehiagok parte hartuko dute.

Araba Helburu, funtsean, Aldundiak lurraldearen etorkizunarekin duen konpromisoaren adierazpenik handiena da. Horrez gain, gaur egun dagoen ziurgabetasun handia kontuan hartuz, non erronka handiei aurre egin behar zaien, **ezinbestekoa da erkidegoak esku hartzea**, lehentasunak antolatzeko eta igarotze prozesuak bultzatzeko.

Hori lortzeko, zenbait fase proposatzen dira. Horrela, helburu nagusia da Aldundiak berak hartzen dituen erabaki politikoetan laguntzen duen gida bat eta **gobernu irekiko tresna bat** sortzea, lurraldeko enpresak, elkarteak eta erakundeak buru diren proiektuak garatzeko.

FASEAK

- 1. ERRONKA PARTEKATUAK EGITEA.** Kontsultarako gogoeta prozesua da, Arabako lehen ikuspegi partekatua izan dezagun, azken xede eta helburu multzo baten bidez. Ikuspegi horri esker, lurraldearen erronka handiak egin, eta interes partekatuko lan lerroak diseina ditzakegu..

2020ko azaroa – 2021eko urtarrila

Adituen panela

Araban bere jarduera profesionalarengatik, adimen edo gizarte arloan duten eraginarengatik hautatutako adituen panela kontsultatzea.

Eraitza:

Araban etorkizun partekatua eraikitzeko oinarrien agiria

- 2. LIDERGO TOPAKETAK.** Elkarlaneko Think Tank prozesua da, eta horren bidez, gizarte, enpresa, kultura, teknologia eta erakunde arloko eragileek osatutako lantaldeak sortzen dira. Bestalde, lantalde horiek, bereziki garrantzitsuak diren gaikako esparrutan antolatzen dira..

Hasiera batean, interes bera duten gaien arabera antolatzen dira taldeak, eta besteak beste, , **Araba Helburu oinarrien agiriaren ondorioak aztertuko dituzte, eragileek zer konpromiso dituzten adieraziko dute, eta gobernantza partekatuaren eta esperimentazioaren arloan sor daitezkeen ekimenak abian jartzen lagunduko dute.**

Eraitza:

Helburu, erronka eta aukera partekatuak

Izan dezakeen jarraipena

ELKARLANEKO SORKUNTZAK ETA ESPERIENTZIAK.

Bigarren fasean lortutako emaitzak kontuan hartuz, ekimen publiko eta pribatuak bultzatzeko prozesu bat abian jartzea baloratuko dute.

Prozesu hori, ikuspegi esperimental batetik proposatuko litzateke, lurraldeko eta Arabatik kanpoko eragileen artean elkarlaneko guneak (fisikoak eta birtualak) abian jartzeko. Gune horietan, haien errepikakortasunagatik, eskalagarritasunagatik edo Arabaren aldaketan duten eraginagatik lurraldean eragin handia izan dezaketen esperientzia berriak egin daitezke. Azken batean, Araba Helburu ekimeneko parte hartzaileek etorkizunerako proposatutako erronkak betetzea da helburua.

2. FASEKO METODOLOGIA

4 LANTALDE. Bigarren faseko edukiak adituz osatutako lantalde txikietan landu dira. Lau gai nagusi dira: (1) ekonomia eta enplegua, (2) gobernantza eta partaidetza, (3) gizarte politikak eta (4) ekolurraldea eta klimaren aldeko ekintzak. Lantaldeak gaian adituak diren 8-10 pertsonaz osatuta egon dira.

2 SAIO. Lantalde bakoitzarekin elkarren segidako bi saio egin dira. Bi saio horietan, jorratuko zuten edukia prestatzeko, aurretik zuten materiala erabili zuten. Gutxi gorabehera bi orduko saioak izan ziren. Bi saio online izan ziren osorik; gainerakoak, mistoak, hots, bertaratu ziren eta online zeuden pertsonak aldi berean egon ziren.

1 INKESTA. Zortzi saioak eginda (bi gai bakoitzeko), landutako puntuetako batzuk osatzeko gai bakoitzarekin loturiko inkesta bat zabaldu dute. Bigarren fasean harremanetan jarritako pertsona guztiei bidali diete inkesta, azkenean saioetan parte hartu zuten ala ez kontuan hartu gabe. Horrela, guztira, 68 pertsonarekin jarri dira harremanetan.

2. FASEKO METODOLOGIA

Lau lan mahaiak aukeratzeko, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Planaren ildo estrategiko nagusiak kontuan hartu dituzte.

**SUSPERRALDI EKONOMIKOA
ETA ENPLEGUA**

**GOBERNANTZA ETA
PARTAIDETZA**

**GIZARTE POLITIKAK
ETA HERRITARRAK**

**EKOLURRALDEA ETA
KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK**

2. FASEKO METODOLOGIA

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

1. SAIOA (2021/06/17)

Iraupena: 2 ordu

Helburua: erronka eta palanken gainean lan egitea, eta lurraldearen beharrak asetzen dituztela ziurtatzea.

Formatua: mistoa
(presentzialak/online)

Egitura: eztabaida irekia

Parte hartzaileak: Askotariko profileko 7 lagun; estrategia, ezagutzaren kudeaketa, zientzia eta berrikuntza, politika publiko, gobernantza eta hirigintza arloekin loturiko esparru pribatu zein pribatuko profesionalak.

2. SAIOA (2021/07/01)

Iraupena: 2 ordu

Helburua: helburuak lehenestea eta egon daitezkeen ekimenak identifikatzea.

Formatu: online

Egitura: Erronka edo palanka bakoitzari buruzko galdera zehatzak

Parte hartzaileak: Askotariko profileko 7 lagun; estrategia, ezagutzaren kudeaketa, zientzia eta berrikuntza, politika publiko, gobernantza eta hirigintza arloekin loturiko esparru pribatu zein pribatuko profesionalak.

INKESTA

Luzera: 24 galdera

Helburua: hobekuntza eta proposamen zehatzekin burutzea erronkak

Formatua: Testu kutxa irekita duten galderak

Parte hartzaileak: Proiektuan parte hartu zuten adituei 16 gonbidapen bidali zizkieten, eta osorik egindako 7 erantzun jaso ziren. Inkestak izena jarri gabe bete ziren.



ARABA HELBURU

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

17 GJH Nazio Batuen Erakundea

1 Pobrezia desagertzea 	3 Osasuna eta ongizatea 	4 Kalitatezko hezkuntza 	5 Genero berdintasuna 
6 Ur garbia eta saneamendua 	8 Lan duina eta hazkunde ekonomikoa 	9 Industria, berrikuntza eta azpiegiturak 	10 Desberdintasunak murriztea 
11 Hiri eta komunitate jasangarriak 	12 Ekoizpen eta kontsumo arduetasunak 	13 Klimaren aldeko ekintza 	15 Lehorreko ekosistemetakoa bizitza 
16 Bakea, justizia eta instituzio sendoak 	17 Helburuak lortzeko aliantzak 	17 + 1 Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna 	

17 HELBURUEK Araba Helburu

EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAK

ARABAKO 17
HELBURUEI
FORMA EMANEZ

1 INDARKERI ARIK GABE	2 HERRITAR OSOAK	3 ONGIZATE UNIBERTSALA	4 GAZTE EMANTZIPATUAK	5 ERANTZUKIDETASU NA AHULENEKIN	6 ZAHARTZE AKTIBO ETA OSASUNGARRIA
7 EKOHIRIGINTZA ETA NATURAREN BALORIZAZIOA	8 EKINTZA KLIMATIKOAR EKIKO KONPROMISO A	9 BERRIKUNTZAN ETA EKOERANTZUKIZUN EAN OINARRITUTAKO EKONOMIA	10 I+G+B LURRALDEA	11 DIGITALIZAZIO UNIBERTSALA	12 LURRALDE OREKATU ETA POLIZENTRIKOA
13 LANKIDETZA BERDINEN ARTEAN	14 HERRITAR KONPROMETITU AK ETA PARTE HARTZAILEAK	15 ELKARLANEKO GOBERNU IREKIA	16 LURRALDE KONEKTATUA ETA KOOPERATIBO	17 ELKARTASUNA HEGOALDE GLOBALAREKIN	araba helburu 17 HELBURU



ARABA HELBURU

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN PARTEKATUA ERAIKITZEKO OINARRIEN AGIRIA

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

**I+G+b arloan eginiko inbertsioa
biderkatzea**

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

HELGURUEK ETA ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute, eta horietatik, 4,
governantzarekin eta partaidetzarekin bat
datoz

Digitalizazio prozesua bultzatzea

1. Administrazio digitala
2. Digitalizatorako sarbide unibertsala.
3. Enpresako kultura digitala.
4. Enpresa digitala.
5. Talentu digitala.
6. Zerbitzu espezializatuak eta azpiegiturak.
7. Lankidetzak.
8. Smart Territory.

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

1. Lurralde polizentrikoa.
2. Lurraldeen arteko lankidetzak.
3. Sarbide homogeneoa lurraldeko zerbitzu publikoetara.
4. Azpiegitura aurreratua Lurralde osoan.
5. Landaguneak sustatzea.
6. Lurralde konektatua eta kooperatiboa

Gizarte kohesioa indartzea

1. Gizarte zerbitzuen berezko eredia eta aurreratua.
2. Etengabeko prestakuntza.
3. Kalitateko enplegua.
4. Pobrezia energetikorik ez.
5. Hizkuntza anitzeko gizarteak.
6. Biztanle gazteak.
7. Erantzunkidetasuna pertsona ahulenekin.

Bizikidetzak balio berriak zabaltzea

1. Informazio publikoaren gardentasuna indartzea.
2. Politika publikoen diseinuan eta ezarpenean parte hartzen laguntzea.
3. Hiriko habitatek eta pertsonak ingurumenarekin duten lotura bultzatzea.
4. Lurraldeko pertsonen aniztasuna ospatzea eta nabarmentzea.
5. Pertsonen eta erakundeen proaktibitatea eta gizarte balioekin duten konpromisoa saritzea.
6. Lankidetzak eredu publiko eta pribatuan sakontzea.
7. Euskararen erabilera bultzatzea gizarte talde guztietan.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

**I+G+b arloan eginiko inbertsioa
biderkatzea**

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetza balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

1

Digitalizazio prozesua bultzatzea ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA


Teknologia digitala gure bizitzeko modua aldatzen ari da: gure ingurunean bakarrik elkarri eragitetik, zerbitzu publiko eta pribatuez gozatera eta lan egitera pasa gara. Etorkizun digitalak aukera asko emango dizkie pertsona, enpresa eta erakunde publiko zein pribatuei. Hala ere, kezka berezi asko ere izango dituzte gure gizarteak eskatzen duen erritmoan aldaketa teknologikoetara egokitzeko eta horiek ulertzeko zailtasunak dituzten gizarte talde eta erakunde askok. Hori horrela, guztion, eta bereziki administrazio publikoen, erantzukizuna da bidezko gizarte digital ireki eta berritzailea gauzatzea, helburu hauetarako:

- Aukera teknologikoak pertsona eta gizarte talde guztiengana heltzeko, kalitate oneko enplegua lor dezaten, herritar gisa dituzten eskubideak errespetatuz (zibersegurtasuna, datu pertsonalen babesa), eta irtenbide berritzaileen bidez, zerbitzu publiko eta pribatu hobeak eta gehiago (osasuna, ongizatea, garraioa, aisialdia eta ingurumena) izan ditzaten.
- Gure enpresek, ETEek bereziki, lehiakortasuna hobetzea, tresna digital berri eta handiz baliatuz, merkatuan duten balio proposamena hobetzeko. Horretarako, antolaketa prozesu eta sistema eraginkorragoak eta produktu eta zerbitzu jasangarriagoak eta berritzaileagoak erabiliko dituzte.
- Ekintzaileek ingurune egokia aurkitzea enpresa eta erakunde berriak sortzeko, eta beren negozio ideiak hazteko eta enplegu berriak sortzeko baliabide teknologiko eta finantzarioak izatea.
- Administrazio publikoek zerbitzu publikoen eskaintza hobetzea, eta teknologia digitala erabiltzea gardenagoak izateko eta politika parte hartzaileagoak eta eraginkorragoak gauzatzeko. Bestalde, digitalizazioak tresna eraginkorra izan behar du sektore publikorako, gizarte erronka handiei aurre egiteko: zahartzea eta klima aldaketa.

17
HELBURUETARA
KO EKARPENA
2030**EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA**
GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK

GOVERNANTZA ETA PARTAIDETZA

2



Digitalizazio adierazleak enpreetan. EAE eta lurraldeak.

EUSTAT.


Digitalizazio prozesua bultzatzea ARABAKO EGOERA

Digitalizazioak dagoeneko ibilbide luzea egin du Euskal Autonomia Erkidegoan, eta aurrerapauso handiak eman ditu azken urteetan. Horrela, digitalizazio maila handia lortu du, eta Europako batezbestekoaren gainera dago, erreferentziako Europako herrialdeen mailan. Bestalde, Internet erabiltzen duten biztanlerik gehien duen euskal hiriburua da.


Aurrerapenak izan baditu ere, alde handiak daude adin taldeen (65 urtetik gorako pertsonen % 42k Internet erabiltzen du) eta talde ahulenen artean (langabeen artean, Interneteko erabiltzaile kopurua lan egiten dutenena baino 33 puntu txikiagoa da).

Lehen belaunaldiko teknologia digitalak (telefono mugikorra, Interneteko sarbidea, helbide elektronikoa eta weba) oso ezarrita daude euskal enpreetan. Hala ere, hobetzeko ibilbide luzea dauka, oraindik, teknologia digital aurreratuenak erabiltzeko, hala nola, sareak, merkataritza elektronikoa, eta plangintzako eta kudeaketako software aurreratu txertatzeko.

Azkenik, euskal enpreetan ia ez daude teknologia digital berrienak (IoT, Big Data, IA, robotika) eta 4.0 industrian nagusi direnak. Esparru guztietan, enpresa handienetan batik bat sartu dira gehien baliabide digitalak, enpresa txikien aldean.



16 eta 74 urte arteko biztanleak dituzten familiak eta Internet etxean. EAE eta lurraldeak, guztira, 2019. eta 2020. urteetan (%).



Interneteko erabiltzaileak EAE eta Araba (%). 2020 EUSTAT.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

3

Bi saioen emaitza gisa, bi ondorio garrantzitsu nabarmendu dira, digitalizazioaren inguruan.

Digitalizazio prozesua bultzatzea ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN

DIGITALIZAZIOA ALDAKETA PROZESUKO TRESNA GISA

Digitalizazioa lurralde eta gizarte kohesioa ekartzeko lurraldeko tresnatzat hartzen da. Kasu guztietan, Araban bizi diren pertsonen erdigunea da.

BI DIGITALIZAZIO ERREALITATE ARABAN

Bi erritmo nabarmendu dira digitalizazio prozesuan; Pertsonen, enpresen eta administrazioaren digitalizazio prozesua.

Pertsonak: nabarmendu du kalitatezko prestakuntza behar da, bidezko trantsizioa egin ahal izateko, non belaunaldi eta talde guztiak kontuan hartzen diren.

Enpresak eta administrazioa: eskura dauden datuak erabiltzen hasteko beharra nabarmendu da, ematen diren zerbitzu eta politiken plangintza eta hedapena egokitu ahal izateko.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

4

**Ekonomiaren,
administrazioaren,
hezkuntzaren,
osasunaren,
hirigintzaren eta
lurralde plangintzaren
digitalizazio prozesuak
unibertsalizatzea.**

Digitalizazio prozesua bultzatzea ERALDAKETARAKO PALANKAK

- **Administrazio digitala.** Zerbitzu publikoetan eta lurraldearen kudeaketan digitalizazio prozesuak indartzea, pertsonekin, tokiko erakundeekin eta ogasunarekin duten harremanean.
- **Digitalizatorako sarbide unibertsala.** Biztanleek beharrezko gaitasunetarako sarbidea dutela bermatzea, gizartearen digitalizatorantz igarotzeko, ahalduntze eta bizi kalitatearen tresna gisa.
- **Enpresako kultura digitala.** Arabako enpresa egiturak kultura digitala behar duela jabetzea.
- **Enpresa digitala. Enpresa egitura eta ETEak bereziki digitalki trebatzea.** Digitalizazio esperientziak eta jarduerak hedatzea enpresa egituraren artean, teknologia arloko azken joerei buruz: Adimen artifiziala, gauzen Internet, elkarlaneko robotika, big data eta doitasun teknologiak.
- **Talentu digitala.** Talentu gaztea, digitala eta espezializatua izatea, ekonomia digitalera bidezko moduan igarotzeko, enpresa txiki eta handien artean tartea sortzea saihestuz.
- **Zerbitzu espezializatuak eta azpiegiturak.** Araban zerbitzu espezializatuak eta gai digitalen arloko azpiegitura sare aurreratua daudela bermatzea.
- **Lankidetzak.** Hezkuntza eta teknologia sistemako eragileekiko lankidetzak erraztea.
- **Smart Territory.** Digitalizazio prozesuak indartzea, lurralde, hirigintza, mugikortasun eta hondakinen politika.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

5

Hiru palanka nabarmentzen dira:
Administrazio digitala
Digitalizaziorako sarbide unibertsala
Lankidetza

Digitalizazio prozesua bultzatzea FUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK

Administrazio digitala

Digitalazioa nabarmendu da, prozesu burokratikoak, beste eragileekiko komunikazioa, herritarren parte hartzea eta bestelakoak aztertzeko aukera gisa.

Lankidetza

Komunikazio zuzena izateko garrantzia nabarmendu da. Beste lurraldeei komunikatzeaz eta erreferente gisa balio izateaz gain, herritarren partaidetza errazteko eta lankidetza publiko eta pribatuak sustatzeko beharra nabarmendu zen..

Digitalizaziorako sarbide unibertsala

Digitalizazio prozesuak egoera eta testuinguru bakoitzera egokitzearen garrantzia azpimarratu da. Gauzatzeko, ezinbestekoa da pertsona talde bakoitzari egokituta dagoen prestakuntza izatea.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

6

Digitalizazio prozesua bultzatzea EKIMEN INTERESGARRIA

1. AUKERA: SANDBOX

“Jolasteko” edo probetarako eremu bat ezartzea. Hor, gure ekimenen berri ematen lagun dezaketen ekimenak berritzen eta bultzatzen saiatuko dira.

Esaterako, digitalizazioaren esparruan erreferenteak diren herriak hautatzea. Lurralde horietan, irtenbide edo tresnak probatzea digitalizazio prozesuan laguntzeko, eta beste lurralde batzuetara nola hedatu daitezkeen aztertzea.

Adibidea:

[Malagako hirko estrategiaren Plan estrategikoak](#) Sandbox metodoa erabili zuen eraldatzeko

2. AUKERA: LANDAGUNEAK

Tokiko erakundeak izatea kultura, dibulgazio eta hezkuntza jarduerak egiteko landaguneetan, digitalizazioak ematen dituen aukeretan trebatzeko biztanleak.

Adibidea:

Zuruzuri Kultura Elkarrekin kultura jarduerak egin dituzten udalekin eta aldundiarekin lankidetzan.

GAKOA: Tokiko edo eremu bakoitzeko eragileak izatea tokiko garapenerako, hala nola, elkarrekin, ikastetxeak, LH...

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

**I+G+b arloan eginiko inbertsioa
biderkatzea**

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

GOVERNANTZA ETA PARTAIDETZA

1

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

Lurralde baten lurralde kohesioa honela definitzen da: lurraldea osatzen duten eta toki berezietan bizi diren pertsonen, zerbitzuetarako eta ekipamenduetarako bidezko sarbidearen, eta ingurune bakoitzaren aniztasunaren eta berezitasunen balioa nabarmentzearen eta errespetatzearen artean loturak sortzeko gaitasuna.

Horrela, lurralde bat kohesionatuta dago gizarte, ekonomia eta ingurumen garapena zein bizi kalitate estandar orekatuak bermatzen dituen neurrian, lurraldea osatzen duten toki eta udalerrri guztietan. Horrela, pertsona guztiek aukera berdintasuna izan dezakete euren bizi itzaropenak asetzeko.

Lurralde kohesioa garrantzitsua da Europako mailan, alde handiak daudelako herrialde eta eskualdeen artean, baina funtsezkoa da Arabako bezalako lurralde batean, izan ere, eremu oso txikian aniztasun eta alde handiak daudelako udalerrien eta kuadrillen artean.

Aniztasunak abantailak ekartzen ditu, berezitasunei dagokienez. Horrez gain, herritarren beharretatik hurbilago daude. Hala ere, aldeak eztabaidak, lehiak eta desadostasunak eragin ditzake ekipamenduen, azpiegituren eta zerbitzu publiko eta pribatuen hornidura egokia ez bada egin lurraldean.


Lurraldean harreman funtzionaltasun osoa lortzeko, lurraldeko aniztasunak kohesionatuta dagoen eredu partekatu eta elkarlaneko eredu kontuan hartu behar du. Eredu hori, gai izango da ingurune bakoitzaren sendotasunez baliatzeko, erakartzeko, aberastasuneko eta ongizateko iturri gisa konfiguratzeko.

Ereduak biztanleen eskaerak ase beha ditu, bidezko modu batean, udalerrien artean lankidetzan eta kooperazioan oinarrituz, pertsonen eta ekosistemen osasunean eta ekonomiaren lehiakortasunean eragin positiboa duten ondasun eta eskubideetarako sarbidea berma dezaten.

17
HELBURUETARA
KO EKARPENA
2030

EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
GOVERNANTZA ETA PARTAIDETZA
GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK
**EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK**

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA



Arabako biztanleen banaketa udalerrika
INE

2

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea ARABAKO EGOERA

Araba EAEko lurralde historikorik hedatuena da, eta biztanle gehienak hiriburuan daude, hots, Gasteizen. Horrela, Arabako biztanleen % 75 han bizi da, eta han biltzen dira zerbitzu eta azpiegitura gehienak ere bai.

Tamainan dauden desberdintasunez gain, lurraldearen aniztasunean eragin handia dute produkzio eta gizarte egituraren beraren ezaugarriek; industria eskualdeek, hala nola, Gorbeia Inguruak edo Arabako Errioxak, % 50etik gorako industria pisua dutenak, beste batzuekin batera bizi dira, hala nola, Arabako mendiekin, baina horietan ez da heltzen % 13ra.

Aniztasuna, lurraldea egituratzen duten komunikazio azpiegiturek ezarritako irisgarritasunean eta konektibitatean ere adierazten dira. Eskualde nagusietarako, oro har, baliagarriak dira, baina neurri txikiagoan isolatuago dauden biztanle entitate askotarako.

Aniztasunak aberastasuna ematen dio lurraldeari. Bestalde, zailtasun handieneko iturrietako bat da, pertsonen eskaera asetzen duen ondasun publiko eta azpiegituren eskaintza bat emateko. Zenbait biztanle kokagunek ez dute sarbiderik eguneroko oinarrizko zerbitzuetara, hala nola, bankuetara, farmazietara, medikuetara edo supermerkatuetara, eskualde nagusietan kokatzen baitira.

Gasteizen ea eskualde nagusien makrozefalia nabarmenak (Estatuko handiena) jardura ekonomikoa eta lurraldez kanpokoa lotzen ditu, baina zentralizatuta ez dauden zerbitzuen eskaintza mugatzen du. Errazagoa eta ekonomikoagoa da Gasteiztik eta eskualde nagusietatik zerbitzuak hornitzea, masa kritiko nahikorik ez duten biztanle entitateetatik zuzenean baino. Baina eredu horrek, nahi ez diren ondorioak izan ditzake; esaterako, despopulazioa eta gehiegizko utzikeria zenbait tokitan.

Arabak, lurraldean oinarrizko zerbitzuak eta zerbitzu aurreratuak hornitzeko eredu aurkitu behar du, herritarren eskaerekin bat datorrena eta ekonomikoki jasangarria dena.

Hori horrela, digitalizazioa tresna berria da, eta aliatu handi bihurtu daiteke zerbitzu publikoen eredu biztanleei ezartzeko, egon daitezkeen desberdintasunak murrizteko, eta lurraldea berrantolatzeke. Azken batean, lurraldeko egituraren balioa modu kohesionatuan nabarmentzea da helburua.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

3

Bi saioen emaitza
gisa, bi ondorio
garrantzitsu
nabarmendu dira,
lurralde
kohesioaren
inguruan.

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea **ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

DIBERTSITATEA MANTENTZEA ETA HAREN ALDE EGITEA

Arabako biztanleen banaketa desberdina eta berezia da, biztanle ugari dituen hirigunea eta herri polarizatuak dituelako. Hori horrela, Arabako dibertsitatea bere ezaugarrietako bat da. Hori dela eta, mantendu behar da, eta hiri inguruetan zein landa inguruetan ongizatea bermatu behar da. Bi inguruetan zerbitzuen, aisialdiaren eta bestelakoen eskaintza bermatuz.

LANDA ARLOAREN BALIOA NABARMENTZEA

Arabako landa eremua bere ezaugarrietako bat da, eta hori dela, garrantzitsutzat jotzen da hari buruz egiten den proiektioa. Kanpoaldeak euren artean ezagutzen badute elkar, nabarmentzen dira, eta horrek, zerbitzuen, aisialdiaren eta bestelakoen eskaintza erraztuko du landa inguruetan. Hori horrela, ezinbestekoa da komunikazio argiaren alde egitea eta partaide izatearen zentzua lantzea.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

4

Lurralde orekatu eta polizentrikoa eratzea, non geografiko edozein puntutan norberak bere kabuz eta taldeka egin ahal izateko.

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea **ERALDAKETARAKO PALANKAK**

- **Lurralde polizentrikoa.** Eskualde nagusiak eta tamaina ertaineko udalerrak indartzea, eskualdeko nodo sendo gisa, eta herri txikiak dituzten egiturazko ahultasunak orekatzeko nahikoa zerbitzuekin hornituta.
- **Lurraldeen arteko lankidetzak.** Gasteiz, Kuadrillen eta haien goiburuen arteko lankidetzak harremanak indartzea.
- **Sarbide homoginoa lurraldeko zerbitzu publikoetara.** Sarbide homoginoa bermatzea kalitatezko zerbitzu publikoetara lurralde osoan, biztanleak ezar daitezkeen. Gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, kultura ekipamenduak, osasun zentroak, kiroldegia.
- **Azpiegitura aurreratua Lurralde osoan.** Hornidura eta telekomunikazioen sareak (5G estaldura, banda zabala) bermatzea lurralde osoan.
- **Landaguneak sustatzea.** Landa eremuetan hornidura eta telekomunikazio sareak daudela bermatzea, telelanerako eta lurraldearekin konektatuta dagoen bizitza baterako baldintza egokiak dituztenak.
- **Lurralde konektatua eta kooperatiboa bere eskualdeko inguruarekin**
 - Trenbide sare berria. Trenbide garapen berriak baliatzea, zentraltasun nodoak sortzeko, ekonomia jardura eta aukerak eta talentua erakartzeko.
 - Aireko konexioa. Araba aireportu sistema integral eta lankidetzako sistema batean sartzeko EAEn.
 - Garraio multimodala. Europako konektibitate ardatzetan sartzeko Araba, eta salgaien garraio multimodaleko merkatuan duen posizionamendua baliatzea.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

5

Hiru palanka nabarmentzen dira:

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea FUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK

Landaguneak sustatzea

Pertsonen landaguneetarako sarbidea eskaintzea ez da jendea hiritik joatea, baizik eta landa eremuetan bizi nahi duen jendeak bere burua mugatuta ez ikustea, edo hori egiteko zailtasunik ez izatea.

Lurraldeen arteko lankidetzak.

Eragileen lankidetzaren bidez, herri bakoitzak nahi duena lantzea, dagokien testuinguruan. Landa eta hiri inguruneetan zer bilatzen den bermatzearen garrantzia nabarmentzen da, erantzuna eman ahal izateko.

Lurralde konektatua eta kooperatiboa

Landa ingurunean eta hiri ingurunea, zein landa ingurunea bera garraio publikoarekin konektatzearen garrantzia nabarmendu da. Gaur egun, zerbitzu gehienak hirian daude, baina herrien arteko maiztasuna eta sarea handi daiteke.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

6

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea **EKIMEN INTERESGARRIA**

1. AUKERA: GOBERNANTZA KOOPERATIBOA

Landa eta hiri jarduera lotzen duten gobernantza sistemetan lan egitea. Horrela, testuinguru desberdinen balioa nabarmentzeko eta bi errealitateen arteko harremana errazteko

Adibidea:

[Eco-Food Map](#)
Proiektua

2. AUKERA: 30 MINUTUKO LURRALDEA

Arabako azpiegitura sarea lurraldearen konektatzen dela bermatzea. Horrela, edozein zerbitzu, aisialdi jarduera edo behar 30 minututan ase ahalko da.

GAKOA: ingurune bakoitzaren errealitateak eta haren eragile garrantzitsuak kontuan hartzea. Kuadrillekiko lankidetzak funtsezkoa da lurralde kohesiorako.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

**I+G+b arloan eginiko inbertsioa
biderkatzea**

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredua sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetza balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

Gizarte kohesioa indartzea

ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

1

Gizarte kohesioari buruz ari garenean, gizarte batek, lehendabizi, ongizatea bermatzeko duen gaitasunari buruz hitz egiten ari gara, desberdintasunak kenduz, eta banakako eta taldeko duintasuna bermatuz. Bigarrenik, guztion lankidetzaz erraztu behar du, partekatutako gizarte helburuak betetzeko. Azken batean, gizarte kohesioa da gizarte garapen jasangarria eta bidezkoa legezkatzen eta errazten duena.



Gizarte eta Ekonomia Kohesioari buruzko Lehen Txostenean (1996), Europako Batzordeak ezarri zuen gizarte kohesioa aktiboki sustatuko zela berariazko politika publikoen bidez, helburu honekin: "berdintasun handiagoa lortzea Estatu kide, eskualde eta gizarte taldeen arteko ekonomia eta gizarte desberdintasunetan".

Hori horrela, agintari publikoek gizarte baldintza ekonomiko, politika eta kulturalak sortu eta bideratu behar dituzte, pertsonen erakundeetan konfiantza izan dezaten, deliberazio prozesuetan parte har dezaten, eta komunitateko kide izatearen eta ahultasun egoeretan daudenekin elkartasun sentimendua gara dezaten.

Gizarte kohesioa zailtzen duten faktoreen artean daude gizarte, ekonomia eta kultura desberdintasunak, pertsonen talde desberdinen artean; baita balio falta ere. Bestalde, nahi baino Kasu gehiagotan ematen da gizarte bazterkeria edota segregazioa, gizarte garatuetan, oro har, eta Araban, bereziki. Espainian bakarrik, diotenez, faktore horiek, 15 milioi pertsonari eragiten diete.

Hala ere, gizarte kohesioa ez da nahitaez kultura aniztasunarekin, pertsonen berezitasunekin edo iritzi aniztasunarekin alderatu behar, gizarte modernoaren ezaugarrietako bat direlako. Gizarte kohesioak ez du esan nahi gizarte bateratua eraikitzea, baizik eta aniztasunean aberatsa den gizarte batek pertsona guztientzat baliagarria den gizarte eredu bat eraikitzea eta bizimodua aurkitzea.

17 EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
HELBURUETARA **GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA**
KO EKARPENA **GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK**
2030 EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK



2

Gizarte kohesioa indartzea

ARABAKO EGOERA

Araba lurralde indartsua da, baina arindu behar diren pobrezia gertakariak ere baditu.

Araba lurralde indartsua da, biztanleko PBG % 25 da, Europako batezbestekoaren aldean (27ko EB). Hala ere, 2018. Urtean, familien % 7,7k ez zuten baliabide ekonomiko nahikorik izan, epe laburrean, oinarritzko beharrak asetzeko, elikagaien, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoan gastuekin lotutakoak bereziki. Lurraldearen pobrezia nabarmen egin zuen gora 2008ko krisi ekonomikoarekin, hala ere, 2014. urtean egoera hobetzen hasi zen. Krisiaren aurreko mailak oraindik ez dira berreskuratu. Arabaren egoera Euskadikoaren oso antzekoa da, eta Europarekin alderatuz, baztertzeko arriskuan dagoen populazioa 28 EBren batezbestekoa baino zertxobait hobea da.

Lan merkatu ahula krisiarengatik, eta ziurgabetasun handiei aurre egin behar die.

Baztertzeko arriskua ekartzen duten faktoreen artean, lan merkatuaren egoera garrantzitsuenetako bat da. Haien egoera ez da egokiena, eta 2008. urteko depresio handiaren eraginak oraindik nabaritzen dira. Arabako gizonezkoen zein emakumezkoen langabezia tasa 2019an bi zifratakoa zen oraindik. Langabeei erdiak baino gehiago 12 hilabete edo gehiago daramatzate enplegua bilatzen (iraupen luzeko langabezia), eta etxeetan lanik gabe bizi diren adingabeen ehunekoa % 8,3 da, EAEko batezbestekoa baino % 9,2 handiagoa. Horrez gain, garrantzitsua da nabarmentzea 18-34 urteko gazteek jasotzen duten soldata % 40 handiagoa izan beharko litzatekeela erosketaren kasuan; % 114, alokairuan, etxebizitza libre bat eskuratzeko aukera izateko, gehienez, hileko soldataren % 30 inbertituz. Egoera larriagoa da emakumeen kasuan.

Azkenik, garrantzitsua da nabarmentzea 2020. urtean eta hurrengo urteetan, lan merkatuaren egoera ez dela batere ona, izan ere, COVID 19aren pandemiaren ondorioei aurre egin behar zaie. Ekonomiaren sektore guztietan shock oso larriak eragiten ari da.

Atzerritar gutxi daude, baina azkar handitzen ari da kopurua.

Arabako atzerritar jatorriko biztanleen ehunekoa % 9,7 da, hala ere, EAEn batezbestekoaren zertxobait gainera dago. Dena den, oso urrun dago Kataluniarekin edo Valentziako eskualdekoarekin alderatzen baditu, ia bikoitza delako. Egoera arruntak baino, denboran duen bilakaerak ezartzen du egoeraren garrantzia. 2000. urtetik aurrera, erkidegoan bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonen kopurua ia 7 aldiz handitu da, eta azken hiru urteetako urteko batez besteko hazkunde tasa % 6 baino handiagoa da.

Genero berdintasunaren adierazleak hobera egin du, baina genero tarte handia adierazten duten osagaiak ditu.

Eustatek kalkulaturako Arabako genero berdintasunaren indizea 71,0 puntukoa da (28ko EB baino 3,6 puntu hobeto), eta ia EAEn batezbestekoaren berdina. Adierazlearen tamaina kontuan hartzen badu, Araba arlo hauetan nabarmentzen da: osasuna (93,7), osasun egoera (98,0) eta jokabide osasungarria (84,3). Hala ere, ezagutzaren arloan, batezbestekoaren azpitik dago (64,0), bai lorpenean eta partaidetzan (70,9) zein segregazioan (57,8). Gainerako dimentsioetan EAEko balioetatik oso hurbil dago. Genero desberdintasuna nabarmenago adierazten den esparrua boterearena da (58,6), botere ekonomikoa batez ere (39,2). Atzetik, jadanik aipaturako ezagutzaren segregazioa dago.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

3

Bi saioen emaitza gisa,
bi ondorio garrantzitsu
nabarmendu dira,
gizarte kohesioa
indartzearen inguruan.

Gizarte kohesioa indartzea **ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

PERTSONAK ERDIAN DAUDE

Arabak bere strategiaren erdian
kokatu behar ditu pertsonak.
Gizartearen integrazioari esker,
bizikidetza edo digitalizazio prozesuek
aurrera egingo dute.

GOBERNANTZA ETA LURRALDE KOHESIOA FUNTSEZKOAK DIRA

Kohesio prozesuan, eragile nagusien,
hala nola, administrazio publikoaren
gobernantza eredua ezinbestekoa da.
Gobernantza parte hartzaile baten alde
egin behar da, eta hor, lurralde
kohesioak funtsezko eginkizuna du.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

4

Bidezko gizartea duen lurraldea eratzea, herritar berdinen arteko lankidetzaren eredu baten inguruan.

Gizarte kohesioa indartzea ERALDAKETARAKO PALANKAK

- **Gizarte zerbitzuen berezko eredia eta aurreratua.** Gizarte zerbitzuen eta esku hartze sozialeko berezko eredia gauzatzea, kontsolidatuta dagoena eta ekonomikoki jasagarria dena, gero eta handiagoa den eskaeraren aurrean kalitate oneko mailak mantentzeko gaitasuna duena.
- **Etengabeko prestakuntza.** Prestakuntza eta ezagutza sustatzea, gizarte emantzipazioko tresna demokratiko gisa.
- **Kalitateko enplegua.** Kalitateko enplegua eta enplegu integratzailea sortzen laguntzea, emakume eta gazteen garapen profesional eta pertsonalari arreta berezia jarritz.
- **Pobrezia energetikorik ez.** Birbanaketa mekanismoak ezartzea, inor atzean ez dela uzten bermatzeko (ez enpresa lehiakorak, ez eta ahultasun energetikoko arriskuan dauden pertsonak ere).
- **Hizkuntza anitzeko gizartea.** Hizkuntza anitzeko gizartea duen lurraldea, gizarte harremanetan euskararen presentzia aktiboa duena. Euskararen erabileraren normalizazioa bultzatzea bizitzaren hainbat esparrutan (enpresa, administrazioa, hezkuntza sektorea, kultura, gizarte harremanak), eta lurraldeko zenbait eremutan.
- **Biztanle gazteak.** Biztanle gazteak ahalduntzea, haien emantzipazioa errazteko, beren bizitza pertsonaleko proiektuak eta jaiotza tasa garatzeko, etxebizitza eta kalitateko enpleguak izateko aukerekin.
- **Erantzunkidetasuna pertsona ahulenekin.** Duintasunez artatzea mendeko pertsonak, gaixoak, askatasunik ez duten pertsonak, eta gure lurraldera etortzen diren migratzaileak.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

5

Hiru palanka nabarmentzen dira:

Gizarte kohesioa indartzea FUNTSEZKO PALANKA GARRANTZITSUENAK

Etengabeko prestakuntza

Herritar guztien beharrak identifikatzeko eta gai horren inguruko prestakuntza eskura jartzeko beharra identifikatzearen garrantzia nabarmendu da.
Betiere formatua talde bakoitzari egokituz.

Biztanle gazteak.

Gazteek partaidetza prozesuetan parte hartu behar dutela nabarmendu, eta haien ahalduntzearen alde egin behar dela. "Gazterik gabe, ez".

Erantzunkidetasuna pertsona ahulenekin

Nabarmendu da funtsezkoa dela balio berrietan lan egitea, eta Araban bizi diren pertsona guztiek lurralderako gaitasunak dituztela ulertzea. Gaitasun horiek nabarmentzen diren eta pertsona guztiek ekarpenak egiten dituzten eremuak sortzeko garrantzia azpimarratu da.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

6

Gizarte kohesioa indartzea EKIMEN INTERESGARRIA

1. AUKERA: TALDE BAKOITZARI EGOKITUTAKO PRESTAKUNTZAK

Zenbait prestakuntza egitea gizarte kohesioaren alde egiten duten lurraldeko beharretarako. Biztanle mota bakoitzari formatu egokia emanez, haien testuingurua, interesak eta bestelakoak kontuan hartuz.

Adibidea:

Gosariak hirugarren adinekoekin, plataforma digitalak azaltzeko.

2. AUKERA: PARTAIDETZA

Herritarrentzako konfiantzazko zerbitzu hurbilaren alde egitea. Digitalizazioak ematen dituen aukerez baliatuz, administrazioarekin parte hartzeko eremuak sortzea (testua, deia, bideo deia, presentziala). Eta informazio hori erabiltzea erabakiak hartzeko.

Adibidea

Bisita presentzialak herrietako udaletxeetara

[Etorkizuna Eraikiz Gipuzkoan](#)

Bilbo [BBK Kuna](#)

GAKOA: Ez pentsatzea herritarrengan bakarrik, baita enpresa pribatuetan eta tarteko eragileengan ere. Edozein prozesuren hasieratik gardentasunaren eta baterako erantzukizunaren alde egitea. Horrez gain, parte hartzeek itzuli behar dute, partaidetzaren balioa nabarmentzeko.

ERRONKAK

Arabako 17 HELBURUEK egiturazko 12
ERRONKAK argitzen dizkigute

**I+G+b arloan eginiko inbertsioa
biderkatzea**

Adineko pertsona aktiboak

Digitalizazio prozesua bultzatzea

Talentu nahikoa eta bikaintasuna

Trantsizio energetikoa eta klima aldaketa

Kultura sarbidea, gozamena eta sorkuntza

Ekonomia zirkularraren eredia sustatzea

Berdintasuna blindatzea

Lurralde kohesioa lortzeko aurrera egitea

Gizarte kohesioa indartzea

Lehen sektorearen balioa nabarmentzea

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea



ARABA HELBURU

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

1

17 EKONOMOA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEA
HELBURUETARA **GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA**
KO EKARPENA **GIZARTE POLITIKAK ETA HERRITARRAK**
2030 EKOLURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO
EKINTZAK

Bizikidetza balio berriak zabaltzea ZER DEN ETA ZERGATIK DEN GARRANTZITSUA

“Araba Helburu” da etorkizun bikaina taldeko eraikitzeke tresna: gizarte hobea, aukera gehiagorekin, bidezkoagoa, pertsona guztiak barne hartzen dituena, inor bidean utzi gabe. Ziurgabetasuna, arriskuak eta aldaketa dira, hala ere, bidean egiteko geratzen direnak: industria iraultza berria ekartzen duten teknologia disruptiboak, pixkanaka agortzen den planeta, eta gero eta globalizatuago eta desberdinago dagoen gizartea; baita gero eta zaharragoa ere.

Aurreko kapituluetan azaldu ditugun erronka handiak kontuan hartzen baditugu, alde batetik, gure betiko balioak indartu behar ditugu, gizarte gisa definitzen eta gauden tokira ekarri gaituztenak. Bestetik, beste batzuk eraiki behar ditugu, gure funtsezko eskubidea indarrez defenda ditzagun, gogogabeziak eraman ez gaitzan. Gure gizarteak gizarte kontratu berria behar du, balio eta eskubideen aitortzea, arlo publiko, pribatu eta publiko-pribatuaren artean, aurre egin behar diogun munduaren konplexutasunerako prestatuta egon gaitzen.

Kontratu sozial bat:

Demokrazia goraiatzeko duena, gure erakundeak aberasteko, gero eta handiagoak diren lankidetzaren eta partaidetzaren bidez, herritarrek libreki adieraz ditzaten beren lehentasunak ordezkari politikoak hautatzeko, baina baita guztion artean eztabaida sozial aberats, dinamiko eta jarraitua eraikitzeke, erabakiak hartzeko prozesu bidezkoagoak eta konstruktiboagoak egon daitezke.

Askatasuna, norberaren autonomia nagusi izatea, langabeziaren esklabotasunetik, kultura ezetik, gizarte bazterkeriatik aske dauden pertsonekin, bere etorkizuna erabaki dezaten, eta gizarte zibil aberats eta dinamiko batean antola daitezke. Hor, erkidegoko kide izatearen sentimendua funtsezkoa da, guztion onerako.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

- **Askatasuna.** Langabeziarik gabeko, kultura ezarik eta bazterkeriarik gabeko lurraldea.
- **Demokrazia Gobernu irekia,** lankidetzaren publiko-pribatuko eremuak, aurrekontuaren parte hartzaileak, informazioa eta gardentasuna
- **Ekologia.** Erantzukizun ekologikoa eta konpromiso etikoa ingurunearekin. CO2-rik gabeko lurraldea, hondakinik gabeko, erresilientea, bertakotua, jasangarria eta energetikoki eraginkorra.
- **Elkartasuna.** Lurralde irekia, solidarioa, parte hartzailea, konprometitua, sarean.
- **Aktibismoa.** Lurralde ekintzailea, langilea, solidarioa, zibila, aktiboa, kidea, parte hartzailea, integraztailea, osasungarria, euskaltzalea, europazalea.
- **Lankidetzaren** eredu ekonomikoa eta bidezkoa. Lankidetzaren eta partaidetzaren praktikaldia erabakiak hartzean. Enpresen arteko lankidetzaren sustatzea.
- **Zientzia eta teknologia** arloko lankidetzaren enpresarekin

2

Bizikidetzaren balio berriak zabaltzea ARABAKO EGOERA

Barruan gauden ingurune naturalarekin konpromiso etikoa nabarmentzen duena, bizitzen uzten gaituena, eta bizimodua aldatzea eskatzen diguna, jasangarriagoa den beste baten ordean. Gure erabakiek eta gure jokabideak ezin dute baldintzatu hurrengo belaunaldien bizitza, geuk bezala, baliabide naturalak beharko dituztelako garatzeko: kontsumo jasangarria, zaindua eta natura errespetatzen duena, erantzukizun partekatua klima aldaketaren aurka borrokatzeko. Horiek guztiak, nahi dugun gizarte berria sortzeko behar ditugun balio garrantzitsuak dira.

Migratzaileak kontuan hartzen dituen, gizarte ireki, demokratiko, askotarikoa eta abegitsua eraikitzeko, erronkei positiboki erantzunez, izan ere, gizarte gisa, gure konpromiso etikoa delako, uko ezina, gure historia eta nortasun kolektiboko funtsezko parte delako, eta immigrazioa behar dugulako gure lan eta demografia erronkei erantzuteko. Azken batean, kultura eta jatorri desberdineko pertsonen osatutako gizarte aldezten dugulako, kultura arteko pluralismoaren balioekin konpromisoa duena, herritar inklusiboak sortzeko.

Pertsonak sustatu eta erdian ipintzen dituen. Ekintzaitza, banaka eta taldeka lan egiteko gaitasuna, sormena, autonomia, irudimena, emozioa eta elkartasuna funtsezko balioak dira gero eta automatizatuago dagoen eta teknologiaren eragina handia den munduan. Pertsonen irizpidea beharko dute proiektuak aktiboki bultzatzeko eta erabakiak aktiboki hartzeko, bizi baldintzak hobetzen dituztenak.

Euskal kultura eta euskara indartzen dituen, Europako herrialde eta eskualdeekin benetako lankidetzaren eraginkorrari uko egin gabe, giza jardueraren esparru guztietan: ekonomia, gizarte, ingurumena eta kultura.

Elkarlaneko eredu ekonomiko baten alde egiten duena, maila guztietan, non erabakiak batera hartzen diren. Enpresan, aurrera egiteko eta lan harremanetan oreka bilatzeko. Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren esparruan, gizarte arazoak konpontzeko ezagutzaren transferentzia laguntzen duen alderdi askoren ekarpena orekatzeko. Oro har, maila guztietako lankidetzaren ekintza kolektiboko modu gisa, gizarte arazoei aurre egiteko eta gizarte proiektu eraldatzaileak sustatzeko.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

3

Bi saioen emaitza gisa, ondorio garrantzitsu bat nabarmendu da, balio berrien inguruan.

Bizikidetza balio berriak zabaltzea **ONDORIO GARRANTZITSUAK ARABAN**

GUZTION BALIOAK

Lurraldeko balioak funtsezkoak dira gizarte eta lurralde kohesioa lortzeko orduan. Bere definizioan lurraldearen dibertsitatea kontuan hartu behar da, eta elkarlanean eraiki behar da.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

4

Gizarte eskemen transformazioa epe luzeko jarduera da, eta zenbait belaunaldik parte hartu beharko dute. Baina bidea ibiltzeko, urrats erraz baina irmoetatik hasi behar da.

Bizikidetza balio berriak zabaltzea ERALDAKETARAKO PALANKAK

- **Informazio publikoaren gardentasuna indartzea.** Jendaurreko informazioaren gardentasunean sakontzea, politika publikoen monitorizazioarekin eta ebaluazioarekin konpromisoa hartuz, kontuak emateko eta gobernantza hobetzeko tresna gisa.
- **Politika publikoen diseinuan eta ezarpenean parte hartzen laguntzea.** Eragile publiko eta pribatuen zein pertsonen partaidetza aktiboarekin konpromisoa hartzea, politika publikoak egin, ezarri eta haien jarraipena egitean.
- **Hiriko habitatek eta pertsonak ingurumenarekin duten lotura bultzatzea.** Natura eta hiriko bizitzan dituen balioak barne hartzea, herritarrek ingurumena errespetatzeko eta zaintzeko tresna gisa.
- **Lurraldeko pertsonen aniztasuna ospatzea eta nabarmentzea.** Gizakiaren aniztasuna nabarmentzea eremu publikoetan eta gizabidezko ekitaldi garrantzitsuenetan.
- **Pertsonen eta erakundeen proaktibitatea eta gizarte balioekin duten konpromisoa saritzea.** Bideak ezartzea, bere gizarte aktibismoarengatik, lurraldeko arazoei irtenbidea bilatzeko, gizarte edo enpresa arloan ekiteko duten gaitasunarengatik bereizten diren pertsonak jendaurrean goraiatzeko.
- **Lankidetza eredu publiko eta pribatuan sakontzea.** Berezko lankidetza publiko-pribatuko eredu sortzea, eragileen artean konfiantza indartzen duena, burokrazia ez emankorra txikiagotzen duena, eta sektore publikoak eta pribatuak esparru ekonomiko eta sozial guztietan egindako ekarpenak eta abantailak baliatzen dituena.
- **Euskararen erabilera bultzatzea gizarte talde guztietan.** Euskararen erabilera sustatzea etxean, enpresetan, erakundeetan eta gizartean, jardunbide egokiak sarituz, eta sentsibilizazio eta prestakuntza tresnak herritarren eskura jarritz.

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

5

Bi palanka nabarmentzen dira::

Bizikidetza balio berriak zabaltzea PALANCAS CLAVE DESTACADAS

Diseinuan parte hartzen laguntzea, eta politika publikoak ezartzea

Baterako erantzukizunaren bidez lan egitearen eta partaidetza prozesuen alde egitea nabarmentzen da. Prozesu horretan, eragileek eta herritarrek batez ere modu aktiboan parte hartuko dute diseinuaren hasieratik, ez bakarrik amaierako etapetan.

Euskararen erabilera bultzatzea gizarte talde guztietan.

Hizkuntza anitzeko gizartearen alde egin behar dela azpimarratu da, eta hizkuntza eragozpena ez izatea. Euskaren erabilera borondatearen ikuspegitik eta eguneroko eremuetan kontuan hartzea

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

6

Bizikidetza balio berriak zabaltzea EKIMEN INTERESGARRIA

1. AUKERA: BALIOEN KARTA

Herritarrek Arabako lurraldea zer balorekin identifikatzen den eta hiria eraldatzeko eragileak zein izan daitezkeen adieraztea eta jasotzea. Horren emaitza Balioen Karta partekatu bat da. Urtero balio bat lantzeko eta balioarekin loturiko lurraldeko proiektuei urteko sari bat emateko erabiliko da.

Adibidea
Bilbo [Balioen Hiria](#).

2. AUKERA: DATUAK

Edozein Gobernantza sistema monitorizatzen duten zenbait adierazle estrategiko definitzea, hala nola, egindako proiektu kopurua, zer eragilek esku hartu duten, zer politika ezarri diren...eta publikoak izan daitezela.

Adibidea
Gobernantza sistemen aginte koadroak.
Proiektua [Eco-Food Map](#)

GAKOA: *Eragileek irizpide arrakastatsu batean parte hartzea: administrazioa, akademia, gizarte eragileak, ikerketa eta enpresa pribatua.*



ARABA HELBURU

helburu

2. FASEA. ARABAN ETORKIZUN
PARTEKATUA ERAIKITZEKO
OINARRIEN AGIRIA

GOBERNANTZA ETA PARTAIDETZA

araba

araba  **álava**
foru aldundia diputación foral